



## URTIKARIA URTICARIA

Zure seme-alabak orain daukan klinika dela-eta, hauxe da diagnostikoa: **URTIKARIA**.

### ZER DA?

Urtikaria larruazaleko erreakzio alergikoa da, zenbait eragilek sorrarazi ahal dutena (jakiak, medikamentuak, eltxoen ziztadak, infekzioak, eguzkia...). Hala ere, ez da arrazoi zehatz bakarra egoten.

### NOLA IGARRI?

Urtikariaren ondorioz, hauexek agertzen dira:

- Baba moduko hanturak (tamaina eta era ezberdinetakoak).
- Hazkura.
- Larruazaleko tenperatura igotzen da.

Beroak sintomak areagotu ohi ditu, eta igurzteak (ohean gaeuz) eta ariketak edo haserrealdiek ere bai. Baliteke desagertzea eta berriro agertzea.

### ZER EGIN?

Urtikaria berez sendatzen da normalean, denborarekin (2-10 egun). Sintomak (hazkura) medikazioa emanda murriztu ahal dira (antihistaminikoak), baina garrantzitsua da neurri fisikoak azpimarratzea: giro freskoa, ariketa fisikorik ez egitea, ur hotzetan bustitako zapiak erabiltzea...

Zerk eragiten duen jakinez gero, gomendagarria da urtikariaren eragileok baztertzea: medikamentuak, jaki berriak...

### ZERI JARRI ARRETA?

Komenigarria da beste azterketa bat egitea hurbilen dagoen osasun-zentroan, honelakorik agertuz gero:

- Baba handi horiek asko zabaltzen badira eta ia larruazal osoa estaltzen badute; edo umearen egoera orokorra txarra bada, neurri fisikoak hartuta edo tratamendu medikoa jarraituta ere.
- Ezpainak eta begiak handitzen bazaizkio.
- Kostata hartzen badu arnasa.

Pediatrak kontrola egitea gomendatzen dizugu. Urtikaria berriro ere gerta daiteke gerora.

Su hijo por la clínica que presenta en este momento ha sido diagnosticado de **URTICARIA**.

### ¿QUE ES?

La urticaria es una reacción alérgica de la piel que puede ser debida a varios factores (alimentos, medicamentos, picaduras de mosquitos, infecciones, sol...) aunque no suele encontrarse una causa concreta.

### ¿COMO RECONOCERLA?

La urticaria cursa con:

- Habones (de tamaño y forma variables).
- Picor.
- Aumento de la temperatura de la piel.

Típicamente los síntomas aumentan con el calor, roce (en la cama por la noche) y el ejercicio o irritabilidad. Puede desaparecer y volver a aparecer.

### ¿QUE HACER?

Generalmente la urticaria se cura sola con el tiempo (2-10 días). Se puede reducir los síntomas (picor) con medicación (antihistamínicos), pero es importante insistir en las medidas físicas como son: ambiente fresco, evitar el ejercicio, paños de agua fresca...

Se recomienda retirar los posibles causantes de la urticaria, si se han podido identificar: medicamentos, alimentos nuevos...

### ¿QUE VIGILAR?

Debería hacerse una nueva valoración en el centro de salud más cercano:

- sí los habones se hicieran muy extensos, de manera que ocuparan casi toda la piel o sí el niño presenta mal estado general, a pesar de las medidas físicas o el tratamiento médico.
- sí se produce hinchazón de labios y ojos.
- sí aparece dificultad para respirar.

Recomendamos control por su pediatra.

Puede repetirse la urticaria en otras ocasiones.